

LAN BATZORDE IREKIAK

TALDEA

EUSKARA ETA KULTURA

IRAUPENA

1.5 ordu

EGUNA

2016-05-12

GAIA

Udaberri kulturala eta Makilariren balorazioa

DEIALDIA

PARTE HARTZAILEAK

Eresti Oiarbide

Arantzazu Baztarrika

Ezin etorria adierazi dute:

Marian Bidegain

Jokin Murua

Irati Aldazabal

Gorka Maiz

Eneritz Gorrotxategi

Iñigo Igartzabal

Aimar Maiz

Xabat Goikoetxea

Leire Murua

ERABAKIAK

GAIA

EKINTZAK

ARDURADUNA

NOIZKO

**UDABERRI
KULTURALAREN
BALORAZIOA**

Oro har, balorazio positiboa egin da. Ekintza guztietan jende dezente hartu du parte; hala ere, ekintza potente bat falta izan dela aipatu da; datorren urterako kontuan hartzen saiatuko gara.

- **Euskal ABDaren harriak:** *Laburmetraiak ikusgai. Martxoak 4, ostirala, 22:00etan.*

Ona izan zen, baina agian komeni zen zertaz zihoan eta ze ikusle motari zuzendua zegoen hobeto zehaztea. **BONO 1**

- **Karmelo Ayestaren hitzaldia:** *“Goza daiteke gehiago euskaldun baten hizkuntza bidaia”* liburuari buruz (irakurle txokoa azkena landutakoa) **Martxoak 11, ostirala, 19:00etan**

Oso ondo atera zen. **BONO 1**

- **Sukaldaritza Ikastaroa:** *Aztiri bat elkartean. Martxoak 16, asteazkena, 17:30ean*

Joan zirenak oso pozik eta gustura aritu ziren. Urtero egin beharrekoa dela uste dugu. **BONO 1**

- **Kirolariek in solasaldia:** *IÑAKI AZURMENDI aizkoalaria, ALOÑA GALARRAGA segalaria, ENARA CACHO errugby jokalaria eta IÑIGO ALUSTIZA eta IÑAKI ALBERDI rally gidariak; Jon Escudero, BERRIAko kirol kazetaria, moderatzaile. Martxoak 18, ostirala, 18:30ean*

Oso ona izan zen, eta moderatzaileak oso giro ona jartzea lortu zuen, baina hurrengo baterako edozein kirolari ekarri beharrean beraien komunikazio ahalmena aintzakotzago hartzea erabaki zen. **6 BONO**

- **Ibilaldia:** *Leharrei mendi lasterketako ibilbidea ezagutzeko; ibilbide luzea eta motza. Martxoak 20, igandea, 08:30ean*

Aurreko eguean egin zuen eguraldi txarra zela eta jende gutxiago joan arren, 25 pertsona inguruko taldea ibili zen oso gustora.

- **Aberri eguna**
Martxoak 27, igandea

Urtero legez, dantzariak, bertsolariak eta alkatearen hitzak izan ziren. Xumea izanda ere, egin beharrekoa dela uste dugu.

- **VL. Osinalde Saria. Osinalde elkartean.**
Apirilak 2, larunbata, 22:00ean
- **I. Leharrei Mendi Lasterketa. Apirilaren 9an**
www.leharrei.eus:

- **Errezildarren ateraldiak.** Laxaro Azkune eta Imanol Lazkanorekin. **Apirilak 15, ostirala, 18:30ean:**

Atsegina eta enterenigarria izan zen. **BONO 1**

- **Eskola umeein grabatutako bideoen emanaldia,**
EMUNekoek dinamizatua. **Apirilak 16, larunbata,**
17:00etan

Balorazio positiboa egin da, bertaratu zirenak gustura jardun ziren; hala ere, euskararen gaia lantzen jarraitu beharra dagoela uste dugu bai umeein eta baita helduekin ere. Gai honek geure artean kezka sortzen duenez, ***datorren euskara eta kulturako batzordea gai hau nola landu pentsatzeko izango da.***

- **Jakoba Errekondo: baratzeko lanei buruzko hitzaldia.**
Apirilak 20, asteazkena, 18:00etan

Ongi, baina pixka bat motela izan omen zen.

- **Jubilatu eguna. Apirilak 24, igandea**

Urtero bezala, eragozpenik gabe pasa zen eguna.

- **Felix Zubia medikuaren hitzaldia: Minbiziari buruz.**
Apirilak 26, asteartea, 17:00etan

Zuzena eta argia, berriro ekartzeko modukoa.

- **Umeentzako kale antzerkia: Kondaira baten truke. Apirilak 30, larunbata, 17:30ean**

Ume nahiko gutxi agertu omen ziren. Datorren urterako edo umeei zuzendurik dagoen beste edozein ekitalditarako komeniko da dantza taldekoekin eta eskolakoekin harremanetan jartzea abisuak pasatzeko; hartara deialdia jende gehiagorengana helduko da

- **Goienerreko hitzaldia.** Energia berriztagarriei buruzko hitzaldia. **Maiatzak 6, ostirala, 18:30ean**

Oso interesgarria izan zen, hurrengo baterako FIAREko (banca etica) norbait ekartzea ondo legoke. **BONO 1**

- **Irakurle txokoa: angel lertxundiren "Zu" liburua. Maiatzak 7, larunbata, 16:00etan**

- **Txindata musika eskolako haurren emanaldia.**
Maiatzak 22, Igandea, 17:00ean elizako saloian. ORDU ERDI LEHENAGO IZANGO DA!!!!!!!!!!!!

	<p>Udaberri kulturaleko aurrekontua: 2.750 €</p> <ul style="list-style-type: none"> - Programen inprimaketa: 376 € - Bono batzuk atera ditugu Gabiriako Ostatuan bi lagunentzako bazkari/afariak egiteko (50 €), eta hainbat ekintza horrela ordaindu ditugu. Guztira 10 bono banatu ditugu: 11 X 50 = 550 € - EMUN: 400 € + BEZ - Jakoba Errekondo: 150 € - Felix Zubia: 117,65 € - "Kondaira baten truke" antzerkia: 600 € + BEZ - Goiener: 50 € + BEZ <p>Guztira gastatua: 2.243,65 €</p> <p>Jubilatu eguneko aurrekontua: 2.900 €</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sariak, plakak: 320 € - Sariak, karta jokoak: 154,80 € - Bazkaria: 30 X 55 = 1.650 € (oraindik ez dute pasa bazkariaren zenbatekoa) <p>Guztira gastatua: 2.124,80 € ??????</p>		
<p>MAKILARIREN BALORAZIOA</p>	<p>Urtero bezala, zoragarri!</p> <p>Aurrekontua: 3.200 €</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diseinatu eta maketatzea: 520 € - Inprimitzea: 1.850 € <p>Guztira gastatua: 2.506,4 €</p>		
<p>GABIRIA ETA INGURUKO HITZ ETA ESMOLDEEN LIBURUA</p>	<p>Liburuak jadanik saltzen ari direnez aurkezpena lehenbailehen egitea komeni da. Pablo Agirrebaltzategirekin hitz egin eta ekaineko ostiral arratsalderen batean egitea posible den galdetuko diogu.</p>		
<p>ANTZERKIA</p>	<p>Jokin Muruak "Bertsolaritzaren sekretuak" antzezlanean parte hartzen du eta ekainaren 5ean, igandea, izango da arratsaldeko 17:00etan. Modu sinbolikoan izan arren, sarrera kobratzea erabaki da (3-5 €).</p> <p><i>Garai bateko bertsolari emakumeen inguruko emanaldia da. Zergatik ez zaigu euren ahotsa iritsi gaur egunera arte? Ez al zegoen emakume bertsolaririk?</i></p>		
<p>HARTU EMAN IKASTAROA</p>	<p><i>Errezeta begetarianoak.</i> Ander Kerejetak eta Maider Mateok ekainaren 25, larunbata, goizean emango dute. Ondoren, bertan prestatutakoarekin bazkaria izango da Osinalde elkartean.</p>		

AIZELEKUKO EGUNA	Aurten Aizeleku mendian gurutzea jarri zela 50 urte direla eta, ekainaren 5ean festa egun bat egingo da bertan dantzari, bertsolari eta abarrekin. Egitarauaren berri laster emango dugu.		
FILMEAK	Kultur etxean jartzen diren filmen egutegia egin gabe dago. Komeniko da datozen hilabeteetarako egunak eta filmak zehaztea.		
AURRERAGO EGIN DAITEKEENA	<ul style="list-style-type: none"> - Autodefentsa ikastaroa - TELP tailerrak. Geuk bakarrik antolatzeko garesti samarra zela iritzita, udazken aldera Ezkiokoekin batera egin daiteke. Eurekin hitz egin dugu eta prest daude bi herriek batera antolatzeko - Helduentzako antzerkiren bat begiratzekotan geratu gara udazken alderako (Florida Pensil neska, Erdibana...) - Ostatuan ostiraleko pintxo potea aprobetxatuz zerbait egin daiteke; ideia batzuk atera baziren ere (kontzerturen bat, bingoa...), ezer zehaztu gabe dago - ... 		

HURRENGO BATZORDEA

MAIATZAREN 24an, asteartea, 19:00etan

Euskararen gaiari nola heldu pentsatzeko!!!